

SL-NA 12 XORROXIN

I.I.D.E.:

Erratzu – Gorostapolo – Xorroxin (urjauzia-purrusta) – Iñarbil – Erratzu

Luzeera: 6,350 km

Desnibela: 200 mt

Zailtasuna: ERREZA

Ibilaldi honetan Baztango hainbat kontraste aurkituko dugu: Gorostapolo eta Iñarbil auzoetan paisaia leun eta zabalean nekazal bizimoduak bizirik irauten duen bitartean, Xorroxin urjauzian erreka zokoko giro ozpela, hezea eta basa aurkituko dugu. Bi mundu hauek, ordea, loturik daude: urjauzia eta bere ingurua lamiaren gordelekua da, euskal baserriko mitolojiaren pertsonai mitikoa.

IRTEERA > Erratzu, herriko plaza eta aparkaleku moduko zabalgunea, frontoiaren ondoan. Herrian hainbat ostatu, jatetxe eta alojamentu badago.

OHARRAK

- Gorostapoloko NA-2651 errepidean aparkatzea mugatua dago. Erabili Erratzuko aparkalekuak.
- Hasierako tartean SL-NA 12 eta PR-NA 7 ibilbideek koinziditzen dute; erne ibili seinalizazioarekin.
- Xorroxin urjauzira ailegatzeko erreka uholdea zeharkatu behar da, harrien gainetik. Irristakorra da eta, zenbait unetan, ur biziak izaten ahal dira.

DESKRIBAPENA

0,000 km: **ERRATZU** (290 mt), herriko ostatu eta plaza. Gorostapoloko NA-2651 errepideko zubitik Baztan erreka zeharkatu, San Pedro eliza ondotik; 250 mt aurrerago, herriko eskola pasa ondoren, errepidetik segitu, eskuinean kanposantuko eta Arizkungo bidea utziz.

0,650 km: Behitegia: eskuinetik, bertze ikuilu batetara doan bide zabala (PR-NA 7-aren itzulia). Errepidetik zuzen segi, harresiz mugatutako belagien artean.

1,565 km: **GOROSTAPOLO AUZOA** (350 mt), Doloretako Amabirjinaren ermita. Auzoan sartu gabe, ermitaren atzetik jeitsi (H.>), harrizko kaltzadatik.

1,900 km: Iñarbegiko erreka harrizko zubia (325 mt) eta 50 mt aurrerago, bidegurutzea: ezkerretik (E.>), Iñarbilera (SL-NA 12-aren itzultzeko bidea). Zuzen igo (H.>), kaltzadan gora.

2,105 km: Errekaxoa pasa eta bifurkazioa: ezkerretik (H.>), Iñarbegira (PR-NA 7), hurrirtza eta gaitzainondo artean. Eskuineko bide zelai eta zabaletik segi (H.M.>), harresi baten ondotik.

2,525 km: Zementozko zubitik erreka zeharkatu eta 130 metro aurrerago bidea utzi eta ezkerretik segi, erreka uholdean sartuz (Oharra: zubia baino lehenago bada ezkerretik bide bat Xorroxineraino, baina eremu pribatua zeharkatu behar da).

2,735 km: Iñarbegiko erreka, harrien gainetik zeharkatu behar dena. Zubitik datorren bidexkarekin bat egin eta erreka bazterretik segi.

2,800 km: XORROXIN URJAUZIA (370 mt). Higadurak sortutako 10 metrotako urjauziak putzu sakon batean isurtzen du. Inguru ozpel eta hezea, ohianak estalia eta kasik eguzkia sartzen ez dena. Etorritako bidetik itzuli behar da, berriz erreka zeharkatuz.

3,650 km: Bidegurutzea, Iñarbegiko erreka harrizko zubia baino 50 mt lehenago: etortzeko bidea ezkerrean utzi eta eskuineko bide zabaletik igo (I.E.>), basoa eta belagien mugatik.

3,850 km: Bide nagusia utzi eta eskuineko bidexka pikutik igo 100 bat metro, berriz bide zabala hartu arte. Zokotik atera eta Istilarteko borda ederra pasatu.

4,425 km: Iñarbegiko bide asfaltatua (400 mt); bertatik jeitsi, ezkerrean. Ia 350 mt aurrerago, Mendibilen borda, Iñarbilgo lehenengo baserria. Bide nagusia mantendu.

5,295 km: IÑARBIL AUZOA (370 mt), iturria eta San Gregorio ermita. Ezkerretik, NA-2652 errepidea. Bertatik jeitsi, Zozaia jauregiaren ondotik pasatuz.

5,965 km: Errepidearen zii-zaga itxia, ezkerreko bidexkatik sahiesten dena; tarte kaltzatua.

6,200 km: NA-2600 errepidea; ezkerretik segi, eskuinean “Baztan” kanpina utziz. Zubia zeharkatu herrigunean sartzeko.

6,420 km: ERRATZU (290 mt), herriko plaza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.